



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2020.02.04

Jarduneko Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Nerea Letamendia Beloso
Xabier Balerdi Tolosa
Patxi Amantegi Zubiria

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeiko otsailaren lauan, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

Ez dira bertaratu:
Begoña Tolosa Mendia
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko Kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

1. 2020ko urtarrilaren 28ko bilkurako akta onartzea.
2. 2020/138 Dekretuaren berri ematea: 2020/ 66 eta 2020/ 67 Faktura-zerrendak.
3. Dekretu hauen berri ematea: 2020ko urtarrilaren 17tik 23ra (2020/91-2020/149).

1. 2020KO URTARRILAREN 28KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2020ko urtarrilaren 28an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. 2020/138 DEKRETUAREN BERRI EMATEA: 2020/66 ETA 2020/67 FAKTURA-ZERRENDAK.

Idazkariak 2020/138 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk.: 2020/0138

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



TOLOSAKO
UDALA

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hauek:

66. zenbakia duena, 627.942,88 eurokoa.

67. zenbakia duena, 60.996,91 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak ondorengo hau

EBATZI DU:

LENEHIK.- Onartzea ondorengo faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

66. zenbakia duena, 627.942,88 eurokoa.

67. zenbakia duena, 60.996,91 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2020ko urtarrilaren 22an

Zinegotzi Delegatuak

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
Idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu da.

3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO URTARRILAREN 17TIK 23RA (2020/91-2020/149).

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2020ko urtarrilaren 17tik 23ra bitartean (DK 2020/0091-2020/0149) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.



TOLOSAKO
UDALA

Honako hauek dira:

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
91	2020	17/01/2020	GAZTEDIA	GAZTEDIAKO 2019KO LEHIA BIDEZKO DIRULAGUNTZAK ONARTZEA.
92	2020	17/01/2020	IDAZKARITZA	PLAZA ZAHARRAKO 2 ZENBAKIA DUEN GARAJEA ESKUALDATZEA ONARTU. J.I.CH.
93	2020	17/01/2020	HIRIGINTZA	MARTIN JOSE IRAOLA 7KO JABEKIDEEI 1976/2019 DEKRETUAREN BIDEZ EGINDAKO LIKIDAZIOA BERTAN BERA UZTEA ETA BERRIA EGITEA
94	2020	17/01/2020	HIRIGINTZA	2018KO UDALAGUNTZAREN DIRU AURRERAPENA BUELTATZEA (SAMANIEGO KIROLDEGIKO EGITURA)
95	2020	17/01/2020	HIRIGINTZA	UDALETXEKO KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZA PROIEKTUA ONARTZEA
96	2020	17/01/2020	HIRIGINTZA	JOSE BALERDI ZUBILLAGARI ZUMIZKETA BASERRIKO HERRI BIDEA ERABILTZEKO BAIMENA EMATEA
97	2020	17/01/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0001 ESPEDIENTEAREN HASIERA
98	2020	17/01/2020	HIRIGINTZA	GUDARI KALEA 10 BEHEAN OLANA JARTZEKO BAIMENA
99	2020	17/01/2020	PERTSONALA	ERRENTA TEKNIKARIEN HAUTAKETAKO ALEGAZIOAREN ERANTZUNA
100	2020	17/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	CASER RESIDENCIAL - ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA: AZAROKO FAKTURA
101	2020	17/01/2020	HIRIGINTZA	NAFARROA ETORBIDEA 8KO EIT TXOSTENEAN AGINDUTAKO LANAK EGITEKO ETA 3. SOLAIRUAN FORJATUA ERREFORZATZEKO EGINDAKO LANAK LEGEZTATZEKO AGINDUA ETA FATXADAKO LANAK LIKIDATZEA
102	2020	17/01/2020	HIRIGINTZA	LASKORAIN 12KO ERAIKINAREN IGOGAILUAREN OBRA BUKAERA EMATEA
103	2020	17/01/2020	OBRAK	ENPERADORE KALEKO 7AN BAZTERKERIA EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO EGOITZA EGOKITZEKO OBREN PROIEKTUA EZ ONARTZEA



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
104	2020	20/01/2020	HIRIGINTZA	IBAIONDO 7 ERAIKINEKO 2. ETA 3. SOLAIRU ARTEAN EGITURAREN ERREFORTZU PUNTUALAK EGITEKO BAIMENA EMATEA
105	2020	20/01/2020	INFORMATIKA	SAREKO KABLEATUA HORNITZEA ORDAINDU
106	2020	20/01/2020	PERTSONALA	2020KO INAUTERIETAKO TRAFIKO LAGUNTZAILEAK
107	2020	20/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	LARRIALDIKO UDAL DIRULAGUNTZAK ONARTZEA T.T.RI
108	2020	20/01/2020	HIRIGINTZA	AROTZEGIETA 2A BEHEKO LOKALEAN PIZZERIA JARDUERA JARTZEKO LOKALA EGOKITZEKO OBRA BAIMENERAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO ETA JARDUERARAKO BALDINTZAK BETETZEKO ERREKERIMENDUA
109	2020	20/01/2020	DIRU-BILKETA	1859 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ZATIKAPEN ESKAERA
110	2020	20/01/2020	DIRU-BILKETA	27577 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAREN ZATIKAPEN ESKAERA
111	2020	20/01/2020	IDAZKARITZA	2020ERRE0003 ESPEDIENTEAREN HASIERA.
112	2020	20/01/2020	HIRIGINTZA	IURRE AUZOA 20-4 A ETXEBIZITZAN OBRAK EGITEKO BAIMENA EMATEA
113	2020	20/01/2020	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 15 BEHEKO LOKAL BATEAN DAGOEN ZABORRARI BURUZKO SALAKETARI ERANTZUNA
114	2020	20/01/2020	PERTSONALA	B.G.(IKASTAROA BIM)
115	2020	21/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	S.M RI UDAL LARRIALDIKO DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA
116	2020	21/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	M.HRI LARRIALDIKO UDAL DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA
117	2020	21/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	M.S.S.RI LARRIALDIKO UDAL DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA
118	2020	21/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	M.R.G.RI LARRIALDIKO UDAL DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA
119	2020	21/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	S.O.RI LARRIALDIKO UDAL DIRULAGUNTZAK EMATEA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
120	2020	21/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	E.M.RI LARRIALDIKO UDAL DIRULAGUNTZAK EMATEA
121	2020	21/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	C.R.RI LARRIALDIKO UDAL DIRULAGUNTZAK EMATEA
122	2020	21/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	A.E.R..RI GLLAK EMATEA
123	2020	21/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	URTARRILEKO ALOKAIRUAK GLL BIDEZ ORDAINTZEA.
124	2020	21/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	R.C.RI LARRIALDIKO UDAL DIRULAGUNTZAK EMATEA
125	2020	21/01/2020	HIRIGINTZA	IURRE 19-20 5 ETXEBIZITZARI LEHEN ERABILARAKO BAIMENA EMATEA
126	2020	21/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	Y.S.RI LARRIALDIKO UDAL DIRULAGUNTZAK EMATEA
127	2020	21/01/2020	ALKATETZA	FITUR AZOKARA JOATEKO DIRUAREN ESKAERA
128	2020	21/01/2020	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 15 BEHEKO LOKAL BATEAN ZABORRA KANPORATZEKO BAIMENA EMATEA
129	2020	21/01/2020	IDAZKARITZA	PATXI AMANTEGI JARDUNEKO ALKATEA IZENDATZEA URTARRILAREN 26TIK 28RA, BIAK BARNE
130	2020	21/01/2020	PERTSONALA	A.B.A. (ARKITEKTOA 1,5 URTERAKO)
131	2020	21/01/2020	HIRIGINTZA	MONTESKUE AUZOA 1B ETA 1 C ERAIKINEKO JABEKIDEEI DIRULAGUNTZA EMATEA FATXADA MARGOTZEATIK
132	2020	21/01/2020	IDAZKARITZA	TOLOSAKO SAN FRANTZISKO IBILTOKIKO 39-41 ZENBAKIETAKO URBANIZAZIO OBRA-KONTRATUAREN ESLEIPENA
133	2020	21/01/2020	IDAZKARITZA	UZTURRE 17-1E ETXEBIZITZA TASATUAREN ESKUALDAKETARAKO GEHIENENKO PREZIOA JAKIARNATZEA
134	2020	21/01/2020	IDAZKARITZA	UZTURRE 11-1D ETXEBIZITZA TASATUAREN SALMENTARAKO GEHIENENKO PREZIOA JAKINARAZTEA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
135	2020	21/01/2020	IDAZKARITZA	ARTXIPIAGA PLAZAKO 6 (-3) APARKALEKUAREN ERABILERA ESKUBIDEA TRANSMITITZEKO GEHIENEO PREZIOA JAKINARAZTEA
136	2020	22/01/2020	FESTAK	OLARRAINGO LAGUN ARTEA ELKARTEARI 2019KO AURREKONTUEN KARGURA 1.357 EUROKO DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEA.
137	2020	22/01/2020	PERTSONALA	M.C.T.S. (ESKAERAREN ERANTZUNA)
138	2020	22/01/2020	KONTUHARTZAILITZA	2019KO 66 ETA 67 FAKTUREN-ZERRENDAK ONARTU ETA BERTAKO BAKOITZAREN ORDAINKEA AGINTZEA
139	2020	22/01/2020	ALKATETZA	ISPO MUNICHERA JOATEKO DIRUA ESKATZEA
140	2020	23/01/2020	HIRIGINTZA	J. A. Z.RI BAIMENA EMATEA HERRIBIDEA ERABILTZEKO
141	2020	23/01/2020	HIRIGINTZA	AMAROTZ AUZOETXEKO OBRAREN 2. ZIURTAGIRIA (LIKIDAZIOA) ONARTZEA
142	2020	23/01/2020	HIRIGINTZA	MARTIN JOSE IRAOLA 3 FATXADAN KONPONKETAK EGITEKO BAIMENA EMATEA
143	2020	23/01/2020	HIRIGINTZA	BEDAIOKO FRONTOIKO OBRAREN 4. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA
144	2020	23/01/2020	AZOKAK	ZUHAITZ AZOKA BEREZIA 2020
145	2020	23/01/2020	IDAZKARITZA	ANDREA MARIA 14KO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA
146	2020	23/01/2020	HIRIGINTZA	B. B.RI BAIMENA EMATE BABES BEREZIKO EREMUTIK EGURRA ATERATZEKO
147	2020	23/01/2020	HIRIGINTZA	B. B-RI BAIMENA EMATEA ERRIBIDEA ERABILTZEKO
149	2020	23/01/2020	AZOKAK	ASMOERRI-RI BAIMENA EMATEA 2020RAKO

Denak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:45ean.

ALKATEA

IDAZKARIA